

BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA

3942

116/2018 DEKRETUA, uztailaren 24koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko kide bat kargutik kentzeko eta beste bat izendatzeko dena.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren urriaren 13ko 3/2011 Legearen bidez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua sortu zen, izaera administratiboko erakunde autonomo gisa; lege horren 7.1 artikulua xedatzen duenez, Administrazio Kontseilua aipatutako erakundearen gobernu-organo goren da.

Bestalde, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Estatutuak maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren bidez onetsi ziren; estatutu horien 6.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, Administrazio Kontseilua honako kide hauek osatuko dute:

- a) Lehendakaria, enpleguaren arloan eskumena duen saileko titularra.
- b) Lehendakariordea, enpleguaren arloan eskumena duen sailburuordetzako titularra.
- c) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia.
- d) Eusko Jaurlaritzak izendatu, eta, hala badagokio, kargutik kenduko dituen bi bokal, enpleguaren arloan eskumena duen sailak proposatuta.
- e) Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten sindikatuen ordezkari izango diren bost bokal. Bost bokal horiek aipatutako sindikatuak aukeratuko dituzte, eta Jaurlaritzak izendatuko, dekretu bidez.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten enpresaburuen elkartearen ordezkari izango diren bost bokal. Bost bokal horiek aipatutako elkarteak aukeratuko dituzte, eta Jaurlaritzak izendatuko, dekretu bidez.

Azaroaren 29ko 253/2011 Dekretuaren bidez (2011ko abenduaren 12ko EHAA, 233. zk.), Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren Administrazio Kontseiluko kideak izendatu ziren, betiere hura arautzen duen legean agindutakoarekin bat etorriz.

Horren ostean, beste zenbait berriztapen egin dira Lanbideren Administrazio Kontseilua osatzen duten kideen artean, bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren ordezkari bai Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkari handiena duten sindikatuen eta enpresaburuen elkartearen ordezkari dagokienez.

2018ko uztailaren 17an, Euskadiko Langile Komisioen Konfederazio Sindikalak bidalitako komunikazioa jaso zen, eta, komunikazio horretan, haren zuzendaritza batzorde konfederalaren erabaki honen berri ematen zen: Lanbideren Administrazio Kontseiluan aipatutako konfederazioa ordezkari duten pertsonetako bat aldatzea. Beraz, beharrezkoa da pertsona hori kargutik kentzea eta beste pertsona bat izendatzea.

Horrenbestez, Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2018ko uztailaren 24an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kide hau, sindikatuen ordezkaria, Euskadiko Langile Komisioen Konfederazio Sindikalak (CCOO) izendatua, kargutik kentzea: María Cruz Vicente Peralta, bokal titularra.

2. artikulua.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluko kide izendatzea, sindikatuen ordezkari gisa, Euskadiko Langile Komisioen Konfederazio Sindikalak (CCOO) izendatua, honako hau: Garbiñe Espejo Jairo, bokal titularra.

3. artikulua.– Dekretu honek onesten den egunetik izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko uztailaren 24an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.

Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburua,
BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ.